Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko azaroaren 25a, asteazkena — 226 — Miércoles, a 25 de noviembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ESKORIATZAKO UDALA

*Iragarkia*

Eskoriatzako Udaleko alkateak ondoko Ebazpena eman zuen 2020ko azaroaren 18an:

2020ko irailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak covid-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden hogei langile baino gutxiagoko Eskoriatzako enpresentzat enpleguari eusteko udal laguntzak emateko araudia hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira 2020ko urriaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez denez, hartutako erabakiaren arabera oinarri horiek behin betikotzat jo dira beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2020ko udal aurrekontuan 40.000,00 euroko diru partida bat jasotzen da aipatutako oinarrietan aurreikusitako diru laguntzak emateko.

Aurrez esandakoarengatik, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

*Lehena*. Covid-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden hogei langile baino gutxiagoko Eskoriatzako enpresentzat enpleguari eusteko udal laguntzak emateko deialdia egitea 2020ko irailaren 29an egindako bilkuran udalbatzarrak onartutako oinarrien arabera. Oinarri horiek erabaki honen eranskin gisa doaz.

*Bigarrena.* 40.000,00 euroko gastua onartzea 0500.471.430.00.01 aurrekontu partidaren kontura.

*Hirugarrena.* Eskaerak aurkezteko epea 2020ko abenduaren 11n amaituko da.

Eskoriatza, 2020ko azaroaren 18a.—Alkatea. (6152

ERANSKINA

*Covid-19ak sortutako krisi ekonomiko eta sozialaren eraginpean dauden hogei langile baino gutxiagoko Eskoriatzako enpresentzat enpleguari eusteko udal laguntzen programaren oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Dirulaguntza lerroa.*

Covid-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen Munduko Osasun Erakundeak 2020ko martxoaren 11n.

Gaixotasunaren progresioari eusteko beharra ikusita, Ministroen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 14an egindako bileran, 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen. Errege-dekretu horren bidez alarma-egoera deklaratu zen Covid-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko. Dekretu horren 7. artikuluak mugak ezartzen zizkion pertsonen zirkulazio-askatasunari. Ondoren, Diputatuen Kongresuak baimena eman zion Gobernuari aurretik ezarritako alarma-egoera luzatzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

*Anuncio*

La Alcaldía del Ayuntamiento de Eskoriatza dictó, con fecha 18 de noviembre de 2020, la Resolución que se transcribe a continuación:

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 29 de septiembre de 2020, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente la normativa para la concesión de ayudas municipales al mantenimiento del empleo para empresas de menos de veinte trabajadores del municipio de Eskoriatza afectadas por la crisis económica y social generada por el Covid-19.

Publicada dicha normativa en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 5 de octubre de 2020 y pasado el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, por lo que de conformidad al acuerdo adoptado se entiende dicha normativa aprobada definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

En el Presupuesto municipal de 2020 se contempla una partida de 40.000,00 euros para conceder las ayudas previstas en dichas bases.

Por todo lo anteriormente expuesto, y en uso de las competencias atribuidas por la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Alcalde,

RESUELVE

*Primero.* Convocar las ayudas al mantenimiento del empleo para empresas de menos de veinte trabajadores del municipio de Eskoriatza afectadas por la crisis económica y social generada por el Covid-19, de conformidad con las Bases aprobadas por el Pleno en sesión del día 29 de septiembre de 2020. Se adjuntan dichas bases como anexo.

*Segundo.* Autorizar el gasto de 40.000,00 euros con cargo a la partida 0500.471.430.00.01 del presupuesto municipal.

*Tercero.* El plazo para presentar las solicitudes termina el día 11 de diciembre de 2020.

Eskoriatza, a 18 de noviembre de 2020.—El alcalde. (6152)

ANEXO

*Bases reguladoras del programa de ayudas municipales al mantenimiento del empleo para empresas de menos de veinte trabajadores del municipio de Eskoriatza afectadas por la crisis económica y social generada por el Covid-19.*

*Base 1. Línea de subvención.*

La Organización Mundial de la Salud elevó el pasado 11 de marzo de 2020 la situación ocasionada por el Covid-19 de emergencia de salud pública a endemia internacional.

Ante la necesidad de contener la progresión de la enfermedad, el Consejo de Ministros, en su reunión de 14 de marzo de 2020, aprobó el Real Decreto 463/2020, por el que se declaró el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, en cuyo artículo 7 se establecían limitaciones a la libertad de circulación de las personas. Posteriormente, el Congreso de los Diputados autorizó al Gobierno a prorrogar el estado de alarma previamente decretado.

EK\CV GAO-I-2020-06152

Era berean, Gobernuak ondoz ondoko errege lege-dekretuak onartu ditu, eta, horien bidez, ezohiko presako neurriak hartu dira Covid-19aren eragin sozial eta ekonomikoari aurre egiteko.

Osasun-krisiaren ondorioz alarma-egoerak ezinbestean ezarri dituen mugek ere eragin kaltegarriak izan dituzte Eskoriatzako eremu ekonomikoan.

Testuinguru horretan, herri honetako lehentasunetako bat da ekoizpen eta gizarte sarea babestea eta laguntzea eragina minimizatzeko eta, osasun-alarma amaitu ondoren, jarduera ekonomikoa eta soziala ahalik eta lasterren suspertzea lortzeko.

Horri dagokionez, langile autonomoek eta Eskoriatzako mikroenpresek beren jarduera eten behar izan zuten alarma-egoera deklaratzearen ondorioz, edo, jarduerari eutsita, fakturazioa murriztu egin zitzaien; horrela, bada, bereziki kaltetuak izan ziren eta langileen plantilla murriztu edo ABEE (aldi baterako enplegu erregulazio) bat eskatu behar izan zuten.

Egoera horren aurrean, eta osasun-krisia gaindituta, uste da Udal honen betebeharra dela laguntza ekonomikoa ematea beren jarduerari berrekiteko eta alarma-egoera deklaratu aurretik izan zituzten enplegu-mailetara itzultzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25. artikuluak honako hau jasotzen du udalerrien eskumen propiotzat: «Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak».

Interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoi justifikatuak ikusita, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1.25. artikuluak udalerriei esleitzen dizkien eskumenak baliatuz, 20 langile baino gutxiago eduki eta Covid-19ak eragindako krisiaren eraginpean dauden Eskoriatzako enpresetan enplegua mantentzeko laguntzak emateko arau berezi hauek onartu dira.

*2. oinarria. Deialdiaren helburua.*

Oinarri hauen helburua Eskoriatzan enpleguari eusteko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea da.

Laguntzak jarduera ekonomikoa duten enpresa eta autonomoei zuzenduta daude, 1etik 20ra arte langile kontratatuta izan eta Covid-19ak eragindako krisiaren eragina jasan dutenak, eta honakoak betetzen dituztenak:

*Bat.* Alarma-egoera deklaratu edo ABEEa eskatu aurreko egunean plantillako kide ziren eta langabezian dauden pertsonen, gutxienez, % 50 berriro kontratatzea.

edota

*Bi.* Covid-19aren eraginez sortutako krisiarengatik murriztutako lanaldia, gutxienez, % 50era arte berreskuratzea edo handitzea.

Dirulaguntza honen ondorioetarako langile hauek soilik hartuko dira kontuan: alarma-egoera deklaratu edo ABEEa eskatu aurreko egunean plantillako kide izan eta aldi horietan enplegua galdu zutenak edo lanaldia murriztu zitzaienak.

Kasu guztietan, kontratu berriak, baldintza berberetan, gutxienez 6 hilabete gerora arte mantendu beharko dira.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira laguntza ekonomiko horiek.

Asimismo, el Gobierno ha ido aprobando sucesivos reales decretos ley por los que se han adoptado medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto social y económico del Covid-19.

Las limitaciones necesariamente impuestas por el estado de alarma, como consecuencia de la crisis sanitaria, han tenido también efectos negativos en el ámbito económico del municipio de Eskoriatza.

En este contexto, una de las prioridades en este municipio radica en proteger y dar soporte al tejido productivo y social para minimizar el impacto y lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca, lo antes posible, una recuperación de la actividad económica y social.

A este respecto, personas trabajadoras autónomas, así como microempresas del municipio de Eskoriatza, como consecuencia de la declaración del estado de alarma, se vieron obligadas a suspender su actividad o, manteniéndola, vieron reducida su facturación, resultando especialmente perjudicadas y obligadas a reducir la plantilla de empleados o a solicitar un ERTE.

Ante dicha circunstancia y superada la crisis sanitaria, se considera que es deber de este Ayuntamiento prestarles un apoyo económico que les permita reanudar su actividad y volver a los niveles de empleo que tuvieron antes de la declaración del estado de alarma.

El artículo 17.1. 25.º, de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales en Euskadi, recoge como competencia propia de los municipios la siguiente: «Desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo».

A la vista de las justificadas razones de interés público, social y económico expuestas, en ejercicio de las competencias que a los municipios atribuye el artículo 17.1. 25.º de la Ley de Instituciones Locales en Euskadi, se aprueban estas normas especiales reguladoras para la concesión de ayudas al mantenimiento del empleo en empresas del municipio de Eskoriatza con menos de 20 trabajadores/as que hayan sido afectados por la crisis convocada por el Covid-19.

*Base 2. Objeto de la convocatoria.*

El objeto de las presentes bases es regular las condiciones que regirán la concesión de ayudas económicas dirigidas a fomentar el mantenimiento del empleo en el municipio de Eskoriatza.

Las ayudas están dirigidas a empresas y autónomos/as con actividad económica, entre una y 20 personas contratadas, que hayan sido afectadas por la crisis provocada por el Covid-19 y que:

*Uno.* Vuelvan a contratar como mínimo al 50 % a personas que formaban parte de la plantilla el día antes de la declaración del estado de alarma o solicitud de ERTE, y que estén en desempleo.

y/o

*Dos.* Recuperen o aumenten como mínimo hasta el 50 % la jornada laboral reducida como consecuencia de la afección por la crisis derivada del impacto del Covid-19.

A efectos de esta subvención, se considerarán únicamente las personas que formaban parte de la plantilla el día antes de la declaración del estado de alarma o de solicitud del ERTE y que perdieron en dichos períodos el empleo o vieron reducida su jornada.

En todos los casos se deberán de mantener los nuevos contratos al menos durante 6 meses después en las mismas condiciones.

Estas ayudas económicas tienen la forma de subvenciones a fondo perdido.

EK\CV GAO-I-2020-06152

*3. oinarria. Onuradunak eta enpresa onuradunen baldintzak.*

Programa honetako dirulaguntzak ondorengo baldintza guztiak betetzen dituzten enpresek (haien forma juridikoa edozein dela ere, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak barne) eta langile kontratatuak dituzten autonomoek jaso ahal izango dituzte:

1. Pertsona fisikoa izatea, norberaren konturako langilea edo autonomoa; eta pertsona juridikoen kasuan, 20 langile baino gutxiagoko mikroenpresa izatea, edozein dela ere bere forma juridikoa.

2. Egoitza fiskala eta lan-zentroa Eskoriatzan izatea.

3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea Eskoriatzan 2020ko martxoaren 14an.

4. Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, alta emanda egotea alarma egoera deklaratu zenean, 2020ko martxoaren 14an.

5. Pertsona juridikoen kasuan, legeztatuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea, eta alarma-egoera deklaratu zen egunean (2020ko martxoaren 14a) Gizarte Segurantzako eta mutualitateetako erregimenetan alta emanda egotea.

6. Eskoriatzako Udalarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga betebeharrak egunean izatea.

7. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren desgaikuntza-egoeretako batean ere ez egotea.

8. Covid-19aren ondorioz sortutako krisiak eragin diola egiaztatzea:

a) Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duenak, establezimendua ixteagatik.

b) Establezimendua aldi baterako itxi ez badu, Covid-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz jarduera gutxitzeagatik izandako kalteak: 2019ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoekin alderatuta fakturazioa % 40 baino gehiago murriztu izana.

Jarduera 2019ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoen ondoren hasi duten onuradunen kasuan, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturala hartuko da erreferentziatzat. Pertsona fisikoa edo juridikoa alta emanda ez badago diru-sarreren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren sei hilabete naturaletan, jardueraren aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.

9. Alerta-egoera amaitu edo ABEEtik atera ondoren, Covid-19aren eraginez sortutako krisiaren ondorioz lana galdu zuten (kaleratzeagatik edo kontratua amaitzeagatik) pertsona berberak kontratatzea edota lanaldi murriztua berreskuratzea/handitzea. Dirulaguntza honen ondorioetarako, alarma-egoera deklaratu aurreko egunean edo ABEE eskaera egin aurreko egunean plantillako langile ziren eta aldi horretan enplegua galdu edo lanaldia murriztu zitzaien langileak soilik hartuko dira kontuan.

10. Dagoen plantilla-garbia mantentzea kontratu berria egiten denetik edo lanaldia berreskuratu/handitzen denetik hurrengo 6 hilabeteetara arte.

11. ABEE batean egon diren enpresen kasuan, enpresa eskatzailea ABEEtik irtenda egon beharko da laguntza eskatu ahal izateko.

12. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zehapen penal edo administratiborik ez izatea eta lagun-

*Base 3. Beneficiarios y requisitos de las empresas beneficiarias.*

Podrán ser susceptibles de recibir las subvenciones contempladas en el presente programa, las empresas, (cualquiera que sea su forma jurídica incluidas las comunidades de bienes y las sociedades civiles sin personalidad jurídica), y autónomos/as con personal contratado, que cumplan todos y cada uno de los siguientes requisitos:

1. Ser persona física trabajadora por cuenta propia o autónoma y en el caso de personas jurídicas, microempresa de menos de 20 de trabajadores cualquiera que sea su forma jurídica.

2. Tener el domicilio fiscal y el centro de trabajo en Eskoriatza.

3. Figurar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en Eskoriatza a fecha de 14 de marzo de 2020.

4. En el caso de personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas, encontrase en alta en la fecha de declaración del estado de alarma, el 14 de marzo de 2020.

5. En el caso de personas jurídicas, estar legalizadas e inscritas en los correspondientes registros y estar dadas de alta en los correspondientes regímenes de la Seguridad Social y Mutuas en la fecha de la declaración de la situación de alarma, el 14 de marzo de 2020.

6. Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Eskoriatza, Hacienda y Seguridad Social.

7. No hallarse incurso/a en ninguna de las circunstancias de inhabilitación a las que se refiere el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

8. Acreditar haber tenido una afección por la crisis derivada del impacto del Covid-19:

a) Por el cierre de establecimiento decretado en el Real Decreto 465/2020 de 17 de marzo que modifica el artículo 10 del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo,

b) En el supuesto en que no hubieran cerrado temporalmente sus establecimientos, acreditar que se han visto afectados como consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión del Covid-19 por minoración de su actividad que suponga una disminución de más del 40 % de su facturación respecto a los trimestres 1.º y 2.º del ejercicio 2019.

En el caso de aquellos beneficiarios que hubieran iniciado su actividad con posterioridad al 1.º y 2.º trimestre del ejercicio 2019, se tomará como referencia el semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma. Cuando la persona física o jurídica no lleve de alta los seis meses naturales exigidos para acreditar la reducción de ingresos, la valoración se llevará a cabo teniendo en cuenta el periodo de la actividad.

9. Tras la finalización del estado de alerta o salida del ERTE, contratar a las mismas personas que perdieron su empleo (por despido o finalización de contrato) y/o recuperen/aumenten la jornada laboral reducida como consecuencia de la afección por la crisis derivada del impacto del Covid-19. A efectos de esta subvención, se considerarán únicamente las personas que formaban parte de la plantilla el día antes de la declaración del estado de alarma o de solicitud del ERTE y que perdieron en dichos períodos el empleo o reducida su jornada.

10. Mantener la plantilla neta existente desde la realización del nuevo contrato o de recuperación/aumento de la jornada hasta los 6 meses posteriores.

11. En el caso de las empresas que hayan estado en un ERTE, en el momento de presentación, la empresa solicitante tiene que haber salido del ERTE para poder solicitar la ayuda.

12. No estar sancionada ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones

tza horiek eskuratzeko ezgaitzen duen lege-debekuren baten eraginpean ere ez izatea, ezta sexu-bazterkeriagatik zehatuta ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera.

*4. oinarria. Dirulaguntza jaso ditzaketen ekintzak.*

Diruz lagungarri izango dira alarma-egoeran edo aldi baterako ezintasun-egoeran dauden enpresa eskatzailean lana galdu zuten pertsonei egindako kontratuak, bai eta aldi horren aurreko lanaldia berreskuratu/handitzeagatik egindako kontratuak ere. Diruz lagundu ahal izango dira, soilik, gutxienez ehuneko 50eko lanaldia duten kontratuak.

Diruz lagundu ahal izango dira alarma-egoera amaitu edo enpresa ABEE egoeratik irten eta hurrengo egunetik aurrera -eta, gehienez ere, 2020ko abenduaren 1a baino lehen- egiten diren kontratazioak edo lanaldia berreskuratu/handitzen dutenak.

*5. oinarria. Diruz lagunduko ez direnak.*

— Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuren bat duten enpresak edo autonomoak.

— Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo haren mendeko erakundeak.

— Elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, langile autonomo laguntzaileak, ondare-sozietateak eta finantza-erakundeak.

*6. oinarria. Baliabide ekonomikoak.*

Aurrekontu-esleipena berrogei mila eurokoa (40.000,00 euro) izango da, eta 2020ko honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0500.471.430.00.01 enpleguaren babesa Covid-19ak eragindako sektoreetan.

Behin agortuta baimendutako kreditua, eta eskaerarik badago erantzun gabe, dirulaguntzak egozten zaizkion aurrekontu-partida handitu ahal izango da erabaki gabekoei erantzuteko.

Zenbateko gehigarria eraginkorra izateko, kreditua zabaltzearen ondorioz kreditua erabilgarri dagoela adierazi beharko da, hala badagokio, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren eta dirulaguntza ematea erabaki baino lehen.

*7. oinarria. Eskaerak aurkeztea.*

1. Eskaerak aurkezteko epea dirulaguntzetarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

2. Dirulaguntza eskatzeko, eskabidea bete, sinatu eta hurrengo puntuan adieraziko den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da Udaleko Sarrera Erregistroan.

3. Eskabidearekin batera, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a. Dirulaguntzaren helburu den norberaren konturako langilearen edo autonomoaren izen-abizenak eta NANa. Edo, pertsona juridikoaren kasuan, sozietatearen egoitza, IFK eta legezko ordezkariaren NANa eta ahalordeen egiaztapena.

b. Dirulaguntzarako eskaera aurkezteko unean Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.

c. Dirulaguntzarako eskaera aurkezteko unean Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea egiaztatzeko ziurtagiriak.

d. Covid-19aren krisiaren ondorioz enpresaren edo autonomoaren jardueran izandako eragina egiaztatzen duen dokumentazioa:

o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres.

*Base 4. Acciones subvencionables.*

Serán subvencionables los contratos realizados a personas que perdieron su empleo en la empresa solicitante de la subvención durante el estado de alarma o situación de ERTE, así como por recuperación/aumento de la jornada laboral previa a dicho período. Únicamente serán subvencionables los contratos con una jornada, como mínimo, al 50 por ciento.

Serán subvencionables las contrataciones o recuperación/aumento de jornada laboral que se lleven a efecto a partir del día siguiente a la finalización del estado de alarma o salida de la empresa de la situación de ERTE y como máximo, antes del 1 de diciembre de 2020.

*Base 5. No serán objeto de subvención.*

— Las empresas o autónomos/as en quienes concurra alguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

— Las administraciones públicas, las sociedades públicas ni las entidades vinculadas o dependientes de cualquiera de ellas.

— Las asociaciones, fundaciones y, en general, las entidades sin ánimo de lucro, personal autónomo colaborador, así como las sociedades patrimoniales y entidades financieras.

*Base 6. Recursos económicos.*

La asignación presupuestaria será de un importe global de cuarenta mil euros (40.000,00 euros) cuya financiación será con cargo a la aplicación presupuestaria 2020: 0500.471.430.00.01 enpleguaren babesa Covid-19ak eragindako sektoreetan.

Si una vez agotado el crédito autorizado existen solicitudes sin atender se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito como consecuencia de una ampliación de crédito, en su caso, previa aprobación de la modificación presupuestaria que proceda, en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

*Base 7. Presentación de solicitudes.*

1. El plazo para presentar las solicitudes comenzará a partir del siguiente día hábil al de la publicación de la correspondiente convocatoria en el «BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa». El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

2. Para solicitar la subvención, se deberá rellenar la solicitud, firmarla y presentar junto con la documentación detallada en el siguiente punto en el Registro de Entradas del Ayuntamiento.

3. Junto con la instancia de solicitud deberá presentarse la siguiente documentación:

a. Nombre y apellidos y DNI de la persona trabajadora por cuenta propia o autónoma para la cual se solicita la subvención. O en el caso de persona jurídica, la razón social y el CIF y el DNI y acreditación de los poderes del representante legal.

b. Certificados de estar al corriente de pagos en Hacienda en el momento de presentar la solicitud de subvención.

c. Certificados de estar al corriente de pagos en la Seguridad Social en el momento de presentar la solicitud de subvención.

d. Documentación acreditativa de la afección a la actividad de la empresa o autónomo/a de la crisis del Covid-19:

EK\CV GAO-I-2020-06152

1. Hala badagokio, Covid-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioak eragindako pertsonei jarduera bukatzeagatik aparteko prestazioa emateko ebazpena, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 17. artikuluan arautua.

2. Hala badagokio, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuz (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duena) edo agintaritza eskudunaren aginduz establezimendu itxi beharragatik.

3. Hala badagokio, ezinbesteak eragindako ABEEaren ebazpena.

4. Gainerako kasuetan, establezimendua aldi baterako itxi ez badu, Covid-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz kalteak jasan dituztela egiaztatu beharko dute, betiere, kalte horiek 2019ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoekin alderatuta fakturazioa % 40 baino gehiago murrizketa eragin badute. Honela egiaztatu beharko da:

— 2019ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoetako balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa eta 2020ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoetako balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioa aurkeztuta.

— 2019ko eta 2020ko ekitaldietako erregistro-liburuak aurkeztea, urtarriletik ekainera bitartean emandako fakturena.

Jarduera 2019ko ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilekoen ondoren hasi duten onuradunen kasuan, alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturala hartuko da erreferentziatzat. Pertsona fisikoa edo juridikoa alta emanda ez badago diru-sarreren murrizketa egiaztatzeko eskatzen diren sei hilabete naturaletan, balorazioa egiteko jardueraren aldia hartuko da kontuan.

5. Hala badagokio, ABEEren amaieraren komunikazioa SEPEri.

e. Kontratazioari edota lanaldia berreskuratzeari/handitzeari buruzko dokumentazioa:

1. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu zen egunean zeuden langileen zerrenda.

2. Berriz kontratatuko den edo lanaldia berreskuratu/handituko zaion langilearen NANa edo AIZa.

3. Enplegua galtzeko edo lanaldia aldatzeko unean enpresan indarrean zuen aurreko kontratua.

4. Lana galdu edota lanaldia aldatu aurreko hileko nomina eta ordainagiria.

5. Bajaren komunikazioa Gizarte Segurantzari.

f. Dirulaguntza sartu beharko litzatekeen kontu korrontearen titulartasunaren egiaztagiria.

g. Beste erakunde edo organismo batzuei egindako dirulaguntza eskaerak edo horiek dagoeneko emandakoak jasotzen dituen zinpeko aitorpena.

h. Eskoriatzako Udalak kasu bakoitzean eska dezakeen beste edozein agiri.

4. Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia udalaren webgunean (www.eskoriatza.eus) eta Eskoriatzako Ibarraundi museoan egongo da eskuragarri.

5. Enpresek edo pertsona interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea dakar.

*8. oinarria. Akatsen zuzenketa.*

Dirulaguntza eskaera behar bezala formalizatu gabe badago, daturen bat falta bada edo eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, eta adieraziko zaio hori egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela, beste tramiterik gabe.

1. En su caso, resolución de concesión de prestación extraordinaria por cese de actividad para las personas afectadas por la declaración del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, regulada en el artículo 17 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo.

2. En su caso, por cierre de establecimiento decretado en el Real Decreto 465/2020 de 17 de marzo que modifica el artículo 10 del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo, o por orden decretada por autoridad competente.

3. En su caso, resolución de ERTE por fuerza mayor.

4. En el resto de los casos, deberá acreditarse que se han visto afectados como consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión del Covid-19 por minoración de su actividad que suponga una disminución de más del 40 % de su facturación respecto a los trimestres 1.º y 2.º del ejercicio 2019. Acreditación:

— Presentación de la liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido del 1.º y 2.º trimestre del ejercicio 2019 y liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido del 1.º y 2.º trimestre del ejercicio 2020.

— Presentación de libros registros de facturas expedidas entre los meses de enero a junio del ejercicio 2019 y 2020.

En el caso de aquellos beneficiarios que hubieran iniciado su actividad con posterioridad al 1.º y 2.º trimestre del ejercicio 2019, se tomará como referencia el semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma. Cuando la persona física o jurídica no lleve de alta los seis meses naturales exigidos para acreditar la reducción de ingresos, la valoración se llevará a cabo teniendo en cuenta el periodo de la actividad.

5. En su caso, comunicación al SEPE de fin de ERTE.

e. Documentación de la contratación y/o recuperación/aumento de la jornada laboral:

1. Relación Nominal de Trabajadores a la fecha de declaración del estado de alarma por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo.

2. DNI o NIE de la persona trabajadora a la que se vuelve a contratar o a recuperar/aumentar la jornada.

3. Contrato anterior en la empresa vigente en el momento de la pérdida del empleo o modificación de la jornada.

4. Nómina del mes anterior a la pérdida del empleo y/o modificación de la jornada y justificante de pago.

5. Comunicación de la baja a la Seguridad Social.

f. Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente en la que se debería ingresar la subvención.

